

## Hizkuntza-eskakizunen egiaztatze gintza aztergai

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioeko hizkuntza-eskakizunen sistemaren desoreka kezka-iturri bilakatu da azken bolada honetan. Ikusi da EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuak ezartzen duena ez dela beti kontuan hartzen; izan ere, zenbait kasutan hizkuntza-eskakizunak kidegoaren arabera ezartzen dira lanpostuen funtzioei erreparatu gabe. Abian jarri den ikerketa baten berri emango da artikulu honetan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Uliazpi erakundearen azterketan oinarrituta, honako hau landuko da: administrazioeko langileen behar komunikatiboen arabera hizkuntza-eskakizunen ezarpena eta trebetasunak egiaztapenari ateak ireki beharko litzaizkioken.

### **Gako-hitzak**

*Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC), hizkuntza-eskakizunak, hizkuntzen egiaztatze gintza, Uliazpi, herri-administrazioak, kasu-azterketa.*

### **1. SARRERA**

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuak ezartzen duenaren arabera, EAEko herri-administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitzean jarduteko beharrezkoa den euskara maila kontuan hartuta ezarriko dira lanpostu bakoitzaren hizkuntza-eskakizunak; hau da, lanpostu bakoitzaren funtzioen arabera ezarriko dira hizkuntza-eskakizunak (86/1997 Dekretua, 7. atala).

Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren VI. Plangintzaldian adierazten den bezala, administrazioeko hizkuntza-eskakizunen sistema, oro har, koherentea izan arren, badira zenbait desoreka. Jaurlaritzaren esanetan, lanpostu berean hizkuntza-eskakizun bat baino gehiago egon daiteke, hots, ohikoa da lanpostu berak administrazio batean hizkuntza-eskakizun bat izatea eta beste bat bestean, erakunde batetik bestera funtzioak aldatzen direlako (Eusko Jaurlaritza, 2018, 19.or.).

Halaber, hizkuntza-eskakizunak gai duten dekretuei erreparatuz gero, antzematen da 86/1997 Dekretuak ezartzen duena ez dela beti betetzen eta, zenbait kasutan, hizkuntza-eskakizunak kidegoen arabera ezartzen direla eta ez lanpostuen eginkizunak

kontuan harturik. Egoera ikusita, beraz, Administrazio Publikoko lanpostuen funtzioak eta eginkizunak xehetasunez aztertu beharko liratekeela ematen du.

Beste alde batetik, ikerketa-proiektu hau helduen euskalduntzearen curriculumgintzaren alorrekoa da, herri-administrazioiko langileen behar komunikatiboen araberrako curriculumaren egokitzapenean ardatzen baita.

Hori horrela, Administrazioiko erakunde bat aztertuko da: Uliazpi. Gipuzkoako Foru Aldundiko organismo autonomoa da eta, esan bezala, bertako langileen egoera aztertuko da, hizkuntza-eskakizunen ikuspegitik.

## 2. LAN-MARKOA

### 2.1. AURREKARIAK

30 urte baino gehiago igaro dira 1982ko azaroaren 24ko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea argitara eman zenetik. Lege honen onarpena inflexio-puntutzat jo daiteke euskararen erabileraren normalizazioak babes legala lortu baitzuen lehen aldiz. Hiritarren hizkuntza-eskubideak aitortu ziren, eta horrekin batera, euskararen normalizaziorako markoa eta erabileraren sustapena definitu (250/1986 Dekretua).

Ondoren, Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearekin, herri-administrazioetako lanpostu bakoitzari hizkuntza-eskakizun bat ezarriko zitzaiola aitortu zen. Zehazki, 97.2 atalak dioenez, aipatutako hizkuntza-eskakizunak lanpostu bakoitzak bete beharreko eginkizunak burutzeko behar diren trebetasun linguistikoetan oinarrituz ezarriko dira (6/1989 Dekretua, 97. atala).

Beranduago, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua eman zen argitara, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena. Dekretu honek ezartzen duenaren arabera, EAEko herri-administrazioetan lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna langileen funtzioak betetzeko eta lanpostuan bertan jarduteko euskaraz beharrezkoa den gaitasun-maila hartuko da kontuan (86/1997 Dekretua, 7. atala). Alegia, testuinguru jakin batean eta dagozkion funtzioen arabera ikusiko da zer-nolako eginkizun komunikatiboak bideratzen dituen pertsona batek.

Horrekin batera, dekretuaren bosgarren atalean adierazten den bezala, aipatutakoa antolatu eta bideratzeko "hizkuntza normalizatzeko egitarauak burutzerakoan jarduerak denboran barrena antolatu ahal izateko, bost urteko iraupena izango duten plangintzaldiak ezarriko dira." (86/1997 Dekretua, 5. atala). Testuinguru horretan, herri-administrazioek euskararen erabileraren normalizaziorako planak onartuko dira, plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean; eta horrekin batera, planak onartuz gero, planaren inplementaziorako egoki deritzoten aldaketak eta egokitzapenak jasoko dira lanpostu-zerrendan (86/1997 Dekretua, 19. atala).

Horrela, Eusko Jaurlaritzak ondorengo plangintzaldiak burutu ditu orain arte (Eusko Jaurlaritza, 2018, 6.or.):

- Plangintzaldia, 1990-1995
- Plangintzaldia, 1997-2002
- Plangintzaldia, 2003-2007
- Plangintzaldia, 2008-2012
- Plangintzaldia, 2013-2017
- Plangintzaldia, 2018-2022

VI. Plangintzaldia da egun martxan dagoena eta euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratzea du helburu, Eusko Jaurlaritzak 2018ko urtarrileko

plangintzaldiaren irizpide orokorrak eta plan nagusia azaltzeko argitaratu zuen txostenak adierazten duenaren arabera (Eusko Jaurlaritzak, 2018, 6.or.).

Aurreko lerroetan zerrendatutako plangintzaldien baitan, langileen hizkuntza-eskakizunei buruzko zenbait dekretu argitaratu ziren, administrazioan euskararen erabilera bermatzea helburu zutenak: Ertzaintzaren 30/1998 Dekretua, Irakaspostuen 6/2000 Dekretua, Euskal Herriko Unibertsitatearen 2002ko ekainaren 5eko Ebazpena, Osakidetzaren 67/2003 Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren 174/2010 Dekretua, besteak beste.

Hala ere, bilakaera horretan antzeman daiteke ez dela beti 86/1997 Dekretuan aipatutakoa betetzen, alegia, zenbait lanpostutan ezarritako hizkuntza-eskakizunak ez datozela bat lanpostuetan bideratzen diren funtzio eta eginkizunekin. Horren adibide dira Justizia Administrazioaren eta Osakidetzaren kasuak.

Alde batetik, 86/1997 Dekretuari erantzunez, Erkidegoko Justizia Administrazioko hizkuntza-normalkuntzari buruzko 174/2010 Dekretuaren hirugarren artikuluan honako hau xedatzen da:

- a. Lanpostu jakin batzuk lanpostu berezi gisa sailkatzea, lanpostuen zerrendan horiei esleitutako funtzio zehatzek euskaraz jakitea eskatzen dutelako.
- b. Unitateak katalogatzea, hizkuntza-betebeharrei begira, herritarrekiko harremana zuzenagoa edo zeharkakoagoa den eta laneko harreman-arloa nolakoa den oinarritzat harturik.
- c. Horrela, ikusirik unitateak herritarrengandik duen hurbiltasuna eta zenbateraino hartu behar duen parte organo judizialen eta zerbitzu orokorren prozeduretan, (...).
- d. Euskararen trebatzeko ikastaroen eskaintza arautzea, lanpostuak bereizteko prozesuarekin eta banakako euskara planekin bat etorriz.
- e. Bulego judizial eta fiskaletan eta zerbitzu orokorretan euskara erabiltzeko programak arautzea.
- f. Lan-talde elebidunak funtzionalki eratzea organo judizial, zerbitzu orokor eta fiskaltza guztietan.

(174/2010 Dekretua, 3. artikulua)

Artikulu horretan, testuinguru jakinetan burutu beharreko funtzioetatik ondorioztatutako komunikazio beharrei begira, adierazten da zer-nolako komunikazio-gaitasuna beharko lukeen "lanpostu berezi" batek. Baina dekretu bereko ondorengo artikuluari (laugarrenari) erreparatuz gero, ez da argi geratzen zer neurritan datorren bat hirugarren artikuluan adierazitakoa laugarren artikulua honetan hartutako erabakiarekin. Badirudi lanpostu hauetan hizkuntza-eskakizunak ezartzeko beste irizpide batzuk erabili direla, funtzio eta eginkizunak albo batera utziz:

- Laguntza Judizialeko kidegoan: 2. hizkuntza-eskakizuna.
- Izapidetze Prozesal eta Administratiboko kidegoan eta Laborategiko Laguntzaileen kidegoan: 2. hizkuntza-eskakizuna.
- Kudeaketa Prozesal eta Administratiboko kidegoan: 3. hizkuntza-eskakizuna.
- Auzitegiko Medikuen kidegoan: 3. hizkuntza-eskakizuna.

(174/2010 Dekretua, 4. artikulua)

Ondorioz, badirudi mailaketa administrazioaren egiturari begira ezarri dela, goitik beherakoa dela, ikasketak oinarrian eta kidegoen araberakoa, eta ez, ordea, lanpostu bakoitzaren behar komunikatiboei eta administrazioaren barruan elkarreaginak eratzen dituen komunikazio-fluxuei erreparatuz.

Bestalde, Osakidetzako Administrazioko hizkuntza-normalkuntzari buruzko 67/2003 Dekretuari dagokionez, esparruen lehentasunezko hurrenkerak mugatu, hizkuntza ofizialak erabiltzeko jarraibideak eman, eta, lan-taldeen arabera hizkuntza-eskakizunak ezartzeko irizpideak zehazten dira lehen mailatik laugarrenera (67/2003 dekretua, 18. artikulua):

- A taldea: 3. edo 4. hizkuntza-eskakizunak
- B taldea: 3. edo 4. hizkuntza-eskakizunak

- C taldea: 2. edo 3. hizkuntza-eskakizunak
- D taldea: 2. hizkuntza-eskakizuna
- E taldea: 1. edo 2. hizkuntza-eskakizunak

Oraingoan ere, Justiziako Administrazioan bezala, hizkuntza-eskakizunen esleipena kidegoen arabera da, eta ez lanpostu bakoitzak bete behar dituen funtzioen arabera. Hizkuntza-eskakizunik altuenak (hirugarren eta laugarrena) goi-mailako lanpostuetako langileei eskatuko zaizkie eta beheagoko lanpostuetako langileei, ordea, hizkuntza-eskakizunik baxuenak (lehenengoa eta bigarrena).

Laburbilduz, hasiera batean, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuak zioen lanpostuen funtzioen eta esleitutako hizkuntza-eskakizunen arteko lotura egon behar dela, baina ondorengo urteetan plangintzaldietan zehar argitara eman diren zenbait dekretutan joera hori ez da bete eta hizkuntza-eskakizunen esleipena kidegoen arabera egin da. Nabarmentzekoa da denbora tarte horretan hizkuntzen ikaskuntzan, irakaskuntzan eta ebaluazioan bilakaera egon zela, eta era berean, helduen euskalduntzearen curriculumean ere aldaketak egon zirela.

## 2.2. HELDUEN EUSKALDUNTZEAREN OINARRIZKO CURRÍCULUMA (HEOC)

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren (HEOC) inguruko zertzelada batzuk emateari ezinbesteko deritzogu, lan hau hobeto ulertzeko eta testuinguru honetan ere curriculumak duen garrantziaz jabetzeko.

Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailburuak 2015eko uztailaren 22an onartu zuen HEOCa eta, zer esanik ez, HABEren ildo nagusien artean dago. Jakina da curriculumak dela irakaskuntza-sistema oro gidatzen duen hari nagusia, eta horixe da hain zuzen HEOCaren egitekoa, helduen euskararen irakaskuntzan dabilenarentzat oinarrizko erreferentzia izatea. Honako hau dugu HEOCaren helburua: “euskararen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako gidalerro nagusiak eskaintzea helduen euskalduntze gintzan ari diren euskaltegiei, euskararen autoikaskuntzarako zentroei zein HABEri eta HABErekin lankidetzan arituko diren erakundeiei” (HABE, 2015, 19.or.).

2010eko azaroaren 9an 297/2010 Dekretua eman zen argitara, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena. Dekretu horren xedea “euskararen jakite-maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatzea, eta Hizkuntzen Europako Marko Bateratuko mailekin parekatzea” izan zen (297/2010 Dekretua, 1. artikulua). Oinarrian Europako Kontseiluak onartutako Hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuak jasotzen dituen sei mailak (A1, A2, B1, B2, C1 eta C2) daude eta HEOCak maila horiek definitzen ditu, baina euskararen eremura etorrira; ikasi eta irakasteko eduki eta helburuei dagokienean, euskararen ezaugarri eta egoera soziolinguistikoetara egokitzen ditu.

Halaber, ekintza komunikatiboak azaltzen ditu, maila bakoitzari dagozkion ezaugarriak xehetasunez azalduz: testuinguruak, komunikazio-baldintzak, gaiak, arloak, testuak, atazak, ebaluazio-eskalak eta irizpideak, e.a. Dokumentuan bertan azaleratzen den bezala, curriculumak izaera integratzailea du, eta, beraz, ekintza komunikatibo horiek elkarri loturik lantzeko aukera luzatu nahi dio irakurleari (HABE, 2015, 19.or.). Hain zuzen ere, Europako Erreferentzia Marko Bateratua bezala, gaitasun komunikatibora eta ekintzara bideratutako ikuspegia eta ikaslearen autonomia baitira curriculum honen oinarri nagusiak (HABE, 2015, 20. or.).

## 2.3. DESOREKA HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN SISTEMAN

Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazioiko hizkuntza-eskakizunen esleipena lanpostu-tipo bakoitzaren funtzio eta eginkizunen arabera egiten den arren, erakunde batetik bestera aldaketa nabariak egoten dira, administrazio batetik bestera funtzio

horiek desberdinak izan daitezke eta. Beraz, ohikoa da lanpostu berak erakunde batean hizkuntza-eskakizun bat izatea eta beste bat bestean (Eusko Jaurlaritzan, 2018, 19. or.). Horrenbestez, esan daiteke Administrazioako hizkuntza-eskakizunen sisteman desoreka sumatzen dela gaur egun.

Horren harira, 2016ko martxoan “Euskarazko azterketen gaineko txostena (euskara ziurtagirien sistema hobetzeko irizpideak)” aurkeztu zuen Euskara Egiaztagirien Baliokidetzen Jarraipen Batzordeak Legebiltzarrean. Bertan, euskara egiaztatzeko sistemak aztertzen dituen lantalde teknikoaren eta kanpoko adituen iritziak eta iradokizunak kontuan hartuz, hamahiru ondorio bildu zituzten (Euskara Egiaztagirien Baliokidetzen Jarraipen Batzordea, 2016, 2-6. or.):

1. “Azterketen diseinua eta aztertzaileen fidagarritasuna”
2. “Hobekuntzaren eta berrikuntzaren bidetik”
3. “Administrazioako langileen hizkuntza eskakizunak”
4. “Trebetasunkako egiaztapena”
5. “Konpentsazio-sistema”
6. “Proben egokitzapena”
7. “Ebaluazio jarraitua”
8. “Komunikagarritasuna, zuzentasunaren gainetik”
9. “Ebaluazioa era positiboan”
10. “Maila bakoitzaren funtzioei erreparaturaz”
11. “Hitz kopurua idazlanetan”
12. “Lantalde tekniko iraunkorra”
13. “Epeak”

Aipatutako ondorio horien artean, hirugarrena eta laugarrena dira nabarmentzekoak. Alde batetik, hirugarren ondorioak aipatzen du “hizkuntza eskakizunen esleipenak lotuta egon behar duela ezinbestean lanpostuaren funtzio komunikatiboarekin” (Euskara Egiaztagirien Baliokidetzen Jarraipen Batzordea, 2016, 2. or.); eta bestetik, laugarrenak trebetasunen arteko simetria zalantzan jartzen du:

Gaur egun, hizkuntza eskakizun bat bete nahi duenak hizkuntza eskakizun horri dagozkion trebetasun guztiak egiaztatu behar ditu (irakurmena, idazmena, entzumen eta mintzamina); nolana ere, trebetasun komunikatibo horiek askotan ez daude denak maila berean; are gehiago: batzuetan gerta liteke trebetasun bat edo beste beharrezkoak ez izatea lanpostu jakin batean jarduteko. Jar dezagun adibide bat. Eskola bateko jatetxean umeak zaintzen dituen begirale batek B2a behar ote du, bere osoan, lana behar bezala egin ahal izateko? Ulermenean eta mintzaminean, seguru asko, bai, umeekin hizketan aritu behar delako; baina, justifikatuta ote dago maila hori bera eskatzea idazmenean edo irakurmenean ere?

(Euskara Egiaztagirien Baliokidetzen Jarraipen Batzordea, 2016, 3. or.)

Horrekin batera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak “Hizkuntza-eskakizunak esleitzeko proposamena” (HAKOBAn onetsia) argitaratu zuen 2017an, administrazioako lanpostu mota bakoitzari hizkuntza-eskakizun bat proposaturaz. Baina, aipatu bezala, erakunde batetik bestera lanpostuen eginkizunak alda daitezkeenez, zenbait kasutan proposamen bikoitza egin zen eta bi hizkuntza-eskakizun jarri zituzten aukeran (Eusko Jaurlaritzan, 2018, 19. or.).

Horrela, aurreikusten dituzten desorekak ikusita ematen du garrantzitsua litzatekeela Administrazio Publikoko lanpostuen funtzioak eta eginkizunak xehetasun handiz aztertzea, ondoren, lanpostuaren behar komunikatiboan arabera hizkuntza trebetasun bakoitzeko maila bat ezarri ahal izateko.

### 3. IKERKETAREN HELBURUA

Testuinguru horretan, administrazio publikoko langileen hizkuntza-eskakizunen egiaztapenerako erreferentziazko dokumentu bat osatzea da artikulu honen azpian dagoen ikerketa-lanaren helburu nagusia. Zehazki, aztertu nahi da zer neurritan datozen bat Uliazpin ezarritako hizkuntza-eskakizunak lanpostuetan bideratzen diren funtzio eta eginkizunekin. Lanpostu bakoitzaren ezaugarriak, komunikazio-premiak eta eremu profesionalen berezitasun komunikatiboak oinarri harturik, trebetasun linguistiko bakoitzean (entzumenean, mintzamenean, irakurmenean eta idazmenean) zein hizkuntza maila eska daitekeen ikusi nahi da.

Beraz, aurreko lerroetan azaldutakoa kontuan hartuta, artikulu honen iturri den ikerketa lagungarria izan daiteke, alde batetik, herri-administrazioko erakunde jakin bateko, Uliazpiko, zenbait lanposturen funtzio eta atazak aztertzeko; bestetik, funtzio eta ataza horiek burutzeko beharrezkoak diren ekintza komunikatiboen sailkapena egiteko; eta azkenik, etorkizunari begira, administrazio publikoko langileen hizkuntza-eskakizunen egiaztapenerako proposamena luzatzeko.

Horretarako, Uliazpi erakunde publikoa aukeratu da ikerketa lan hau aurrera eramateko organismo adierazgarria eta kudeagarria delakoan. Gipuzkoako Foru Aldundiko organismo autonomoa da, Adimen eta Garapen arloko Ezgaitasuna (AGE) eta hainbat Laguntza Premia dituzten pertsonak artatzen dituena. Gipuzkoan zenbait zentro ditu Donostian, Bergaran, Eibarren, Zizurkilen eta Hondarribian. Adimen urritasuna duten pertsonen eta beren familien bizi kalitatea garatzen laguntzen duten zerbitzuak eta laguntzak eskaintzea da erakunde publiko honen ardura (Uliazpi, 2019).

Uliazpi erakunde aztergai izatea erabaki zen, lehenik eta behin, Administrazioari lotutako erakunde delako. Gainera, bere baitan aurki daitezkeen langileen profilen artean lau hizkuntza-eskakizunak (1.HE, 2.HE, 3.HE, 4.HE) hartzen dituzten lanpostuak daude eta, aldi berean, tamaina aldetik ez da oso erakunde handia; beraz, aberatsa eta kudeagarria dela esan daiteke. Horrekin batera, lanpostu tipoa askotarikoak izateaz gain, ondo definituak daude eta lanpostu tipo bakoitzeko zenbait plaza daude; azken ezaugarri horiek ikerketarako onuragarriak izango zirela uste izan zen.

Horiek horrela, ikerketan ondorengo galderei erantzuten saiatuko gara:

- Zeintzuk dira Uliazpiko langileen atazak eta funtzioak?
- Zeintzuk dira Uliazpiko langileen funtzioen arabera sortzen diren harreman-sareak?
- Zeintzuk dira Uliazpiko langileek funtzioak aurrera eramateko dituzten behar komunikatiboak?
- Zeintzuk dira Uliazpiko langileek behar dituzten trebetasun linguistiko sortaileak (mintzarena eta idazmena)? Eta hartzaileak (ulermena eta irakurmena)?
- Uliazpiko lanpostu tipoa aztertuta, posible litzateke hizkuntza-eskakizun asimetrikoak proposatzea?

### 4. METODOLOGIA

#### 4.1. HIPOTESIA

Orain arte bildutako corpusak eta lanaren testuinguru eta aurrekariak lan honen lehendabiziko hipotesira garamatzate: hizkuntza-eskakizunak lanpostuen funtzio eta atazetan bideratzen diren behar komunikatiboen arabera ezarri behar dira eta, horren arabera, hizkuntza-eskakizun mistoak proposatu beharko lirateke, non trebetasun linguistikoen asimetria egon daitekeen.

Behar komunikatibo horien azterketari esker, baliteke etorkizunean lanpostuei egokitutako hizkuntza-eskakizun asimetrikoak sortzea eta horiek egiaztatzei aukera izatea, edota, hizkuntza-eskakizunak soilik trebetasun konkretuetan exijitzea (ahozkotasunean eta irakurmenean soilik, adibidez).

## 4.2. DATUEN ETA METODOEN TRIANGULAZIOA

Aldez aurretik aipatutako helburua aurrera eramateko eta zerrendatutako ikerketa-galderei erantzuteko datuen eta metodoen triangulazioaz baliatuko gara. Triangulazioa arras erabilia da metodo desberdinen bitartez eskuratutako datuak eta horien interpretazioak alderatu ahal izateko.

Ikertzaile askok metodologia honen aldeko jarrera erakutsi dute. Izan ere, teknika hau erabiltzeak sinesgarritasun handiagoa ematen dio ikerketa bati, datuak ikuspuntu desberdinetatik jasotzeko aukera eskaintzen baititu. Hain zuzen ere, jakina da fenomeno bat ondo ulertzeko ezinbestekoa dela zenbait ikuspuntutik aztertzea eta Denzin-ek 1970ean proposatu zuen bezala, zenbat eta triangulazio gehiago orduan eta fidagarriak izango dira emaitzak (Lasagabaster & Sierra, 2004, 54. or.).

Triangulazioaren printzipio metodologikoak molde edo forma desberdinak har ditzake, baina kasu honetan, ikerketa honetarako, informazioa biltzeko ondorengo metodoak konbinatzea erabaki da: dokumentuen azterketa, elkarrizketak, galdeketa eta behaketa.

Lehenik eta behin, Uliazpiko langileek baliatzen dituzten dokumentu idatzi guztien analisi sakona egin zen, eta azterketa horretatik lehenengo ondorioak atera. Beraz, ateratako emaitzak osatzeko, zentroetako langileekin eta zuzendareekin elkarrizketak egingo dira hilabete hauetan; eta elkarrizketa libre horiekin batera, galdeketa batzuk sortuko dira.

Azkenik, aipatutakoa errealitatean nola jazotzen den ikusteko, zentroetara bertaratuz behaketa lana egingo da. Langile eta artatuen eguneroko bizitzan sortzen diren egoera komunikatibo errealak audio formatuan grabatu eta aztertuko dira, horrela, euren errealitatera ahalik eta gehien hurbilduz.

## 4.3. CORPUSA

Ikerketan zehar aztergai izango den corpusari dagokionez, aurreko lerroetan aipatu bezala, alde batetik, zentroetako langileek eskuartean izaten dituzten dokumentu idatziak daude, Uliazpiko langileen funtzio eta eginkizunen zerrendarekin batera; eta bestetik, Uliazpiko egoitzetan grabatuko diren bideo eta audioak.

Beraz, lanean baliatuko diren iturriak, oro har, lehen mailakoak izango dira. Lehenengoak, Uliazpin bertan erabiltzen dituzten dokumentu originalak dira, aldaketarik edo interpretaziorik gabekoak; eta bigarrenak, behaketa lana eginez eta elkarrizketen bidez lortutako datuak. Zehazki, aipatutako dokumentu idatziaren artean, mota askotako testuak ikusiko dira; ordenagailu bidez baliatzen duten foroan agertzen diren oharretatik hasita, euren egunerokoan betetzen dituzten erregistro edo txostenekin jarraituz: bisiten kontrola, aisialdi eta komunitatean parte hartzen dutenen kontrola, krisi epileptikoen kontrola, kanpo-erregistroak, hipikan parte hartzearen kontrol-orria, eguneko zentroko erregistroa, asteburu eta jaiegunetako jardueren erregistroa, e.a.

## 4.4. ANALISI-IRIZPIDEAK

Analisiari dagokionez, Uliazpiko Donostiako zentroa aztertzea erabaki zen, zentro horretan askotariko langileak baitaude, Uliazpiko beste zentro batzuetan ez bezala; beraz, eredu gisa proposa izan zitekeela uste izan zen. Azterketa beheko lanpostuetatik hasita gorakoetara egitea erabaki zen, horrenbestez, zaintzailearekin hasi eta unitate arduradunarekin jarraituko da, ondoren gorakoetara joz.

Lan honetan analisi desberdinak egingo dira. Alde batetik, arestian aipatutako dokumentu idatziak aztertu zirenean, langileek dokumentu horiek ulertzeko edota

idazteko behar dituzten gaitasun linguistikoetan jarri zen fokua. Hau da, euren egunerokoan dokumentu horiei, aurre egin ahal izateko zer trebetasun komunikatibo behar duten aztertu zen. Eta prozedura bera jarraituko da egoitzetan beraietan egingo diren grabaketak eta behaketak aztertzean. Langileek beharrezkoak izango dituzten gaitasun komunikatiboak identifikatu eta nabarmentzea izango da asmoa.

Horiek horrela, ondorengo lerroetan Uliazpiko langileen funtzio eta eginkizunen analisiak egiteko erabili zen prozedura eta oinarri hartu ziren analisi-irizpideak azalduko dira:

Hasteko, langileen funtzioak erabilera-esparru desberdinetan sailkatu ziren; betebeharrak eta ekintza komunikatibo bakoitza egoera edo testuinguru jakin batean gertatzen delako, eta, hori dela eta, garrantzitsua da funtzio bakoitzaren erabilera-esparrua ondo zehaztea (ikus 1. eranskina).

Horrekin batera, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean oinarrituz, Uliazpiko zaintzaileen funtzioen analisi zehatza egin zen curriculumean bertan zehazten diren deskriptoreak kontuan hartuta: testuinguruaren ezaugarriak, gaiak, funtzio komunikatiboak eta testu-generoak (ikus 2. eranskina).

Lehenengo, enuntziatzailea eta enuntziataria aztertu ziren funtzio bakoitzean betetzen dituzten rolak eta solaskideen arteko harremana nolakoa den adieraziz: gertutasunezkoa, formala, urruntasunezkoa, e.a.

Ondoren, langileak funtzio bakoitzean bere ekintza komunikatiboa gauzatzeko baliatzen dituen gaiak zeintzuk diren ikusi zen, HEOCak proposatzen duen gai-zerrenda oinarri harturik. Era berean, betebeharrak bakoitza burutzeko gauzatu behar dituzten hizkuntza funtzioak zerrendatu ziren, komunikazio-asmo edo xede komunikatiboen arabera.

Hori eginda, langileak lan-esparruan baliatzen dituen testu-generoak identifikatu ziren; horretarako, HEOCean ezartzen den sailkapena hartu zen oinarri, nagusiki. Eta azkenik, testu-generoak bi multzotan sailkatu ziren, idatzizkoak eta ahozkoak; eta multzo bakoitzean, ulermen- eta ekoizpen-mailakoak.

## 5. ETORKIZUNEN NORABIDEA

Zaintzaileen eta unitate arduradunen dokumentu idatzien eta funtzioen analisiak burutu dira orain arte; beraz, aztergai daude gainerako lanpostuen funtzioak eta baliatzen dituzten dokumentu idatziak; eta horiekin batera, audio-grabaketak eta galdeketak egitea falta da. Hala eta guztiz ere, zaintzaileen eginkizunak, funtzioak eta baliatzen dituzten dokumentu idatziak aztertuta, informazio interesgarria atera da; eta horri esker, zenbait ideia garrantzitsu ere bai.

Uliazpiko zaintzaileen funtzioak eta eginkizunak behar bezala betetzeko ezinbestekoak diren trebetasun linguistikoen artean desberdintasunak egon badaudela sumatzen da. Testu idatzien ulermenean eta ekoizpenean A2 maila behar dute langileek gehien jota; ahozko komunikazioan, ordea, bai ulermenean eta bai ekoizpenean ere, maila altuagoa behar dutelarik, B2 maila gutxienez.

Oraindik behaketa lana falta da, horrenbestez, oraingoan ez da trebetasun linguistiko bakoitzean maila bat ezarriko. Lehenengo, Uliazpiko zentroetara joan beharko da errealitatean sortzen diren harreman-sareak eta egoera komunikatiboak ikusteko; eta hori eginda, aztergai izango diren lanpostuen funtzioetan oinarrituta trebetasun bakoitzari maila bat ezarriko zaio.

Horrela, behar komunikatiboen azterketa zehatzagoa eginez, baliteke lanpostu-tipoei hobeto egokitutako hizkuntza-eskakizunak sortzea, lanpostu horien beharrei hobeto

egokituz, eta ondorioz, herritarrei zerbitzu hobea eta duina eskainiz. Ahaztu barik, euskal herritarren eskubidea dela euskara eta gaztelania ezagutzea eta erabiltzea, eta horrenbestez, Uliazpik, erakunde publiko gisa, eskubide hori bermatu beharko lukeela. Administrazioa eredugarria izan beharko litzateke eta herritarren hizkuntza eskubide horiek betetzea bermatu beharko luke.

Azkenik, ondo legoke 86/1997ko Dekretuaren marko filosofikora bueltatzea, gaur egungo dekretuak pentsamolde horretara ekarriaz. Gaur egungo administrazioan hizkuntza-eskakizunen sisteman dauden desorekak ezagututa, lanpostu tipo bakoitzari beharrezkoa zaion hizkuntza-eskakizuna proposatzea garrantzitsua litzateke, trebetasun bakoitza kontuan hartuta eta hizkuntza-eskakizun asimetrikoen aukera aintzat harturik.

**Bibliografia**

- 174/2010 Dekretua, 2010eko ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioeko hizkuntza-normalkuntzari buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Gasteiz, 2010eko uztailak 12, 132. zenbakia.
- 250/1986 Dekretua, 1986ko azaroaren 25ekoa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herri-Administrazioetan Euskararen erabilera eta normalizazioa arautuz. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Gasteiz, 1986ko azaroak 29, 236. zenbakia.
- 297/2010 Dekretua, 2010eko azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen dituen tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Gasteiz, 2010eko azaroak 15, 219. zenbakia.
- 6/1989 Legea, 1989ko uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Gasteiz, 1989ko uztailak 28, 144. zenbakia.
- 67/2003 Dekretua, 2003ko martxoaren 18koa, euskararen erabilera Osakidetza-Euskal Osasun zerbitzuan normalizatzeko prozesua arautuko duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Gasteiz, 2003ko martxoak 31, 64. zenbakia.
- 86/1997 Dekretua, 1997ko apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Gasteiz, 1997ko apirilak 17, 72. zenbakia.
- Euskararen Egiaztagirien Baliokidetzen Jarraipen Batzordea (2016). *Euskarako azterketen gineko txostena (euskara ziurtagirien sistema hobetzeko irizpideak)*. Gasteiz: Euskararen Egiaztagirien Baliokidetzen Jarraipen Batzordea. Hemendik eskuratu: <http://www.legebiltzarra.eus/irud/10/00/037428.pdf>
- Eusko Jaurlaritzak (2018). *Eusko Jaurlaritzan euskararen erabilera normalizatzeko irizpide orokorrak eta plan nagusia. VI. Plangintzaldia (2018-2022)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. Hemendik eskuratu: [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/herri\\_admin\\_normalizazioa/eu\\_def/adjuntos/EIPLANA\\_WEB\\_EU.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/herri_admin_normalizazioa/eu_def/adjuntos/EIPLANA_WEB_EU.pdf)
- HABE (2015). *Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculum*. Donostia: HABE. Hemendik eskuratu: [http://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/oinarriak/eu\\_9716/adjuntos/HEOC-digitala.pdf](http://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/oinarriak/eu_9716/adjuntos/HEOC-digitala.pdf)
- Lasagabaster, D. eta Sierra, J.M. (koord.) (2004). *La observación como instrumento para la mejora de la enseñanza-aprendizaje de lenguas*. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona, Institut de Ciències de l'Educació, ICE.
- Larson, J.W. eta Madsen, H. (1984). Computerized adaptive language testing: moving beyond computer-assisted testing. *CALICO Journal*, 2 (3), 32-37.
- Uliazpi (d.g.). *Helburua, ikuspena eta balioak*. Hemendik eskuratu: <http://www.uliazpi.net/01mision.asp>

**1. eranskina.** Uliazpiko zaintzaileen erabilera-esparruen taula

<p>Lanpostuaren Kodea: Postua: Zaintzailea (Uliazpi) Zerbitzua: Erakunde publikoak</p>	<p><b>Oinarrizko Funtzioa:</b> <i>Realiza tareas de cuidado y atención referidas a la vida diaria de los usuarios del Centro que, a causa de su discapacidad, precisen, así como al proceso recuperador o de habilitación para la autonomía personal de los mismos, procurando el establecimiento de un clima acogedor, similar al familiar, así como su integración en el medio social.</i></p>
--	--

Erabilera-esparrua		Betebeharra	
<b>ERAKUNDEA (Donostia zentroa)</b>	<b>Pertsona</b>	Eremu pribatua. Pertsona. Itxura eta txukuntasuna.	- Ayuda a la satisfacción de necesidades fisiológicas, aseo, vestido y limpieza de los usuarios, realizando los traslados y la asistencia a los usuarios a tales efectos. Frecuencia: Diaria.
		Eremu pribatua. Pertsona. Hitzorduak eta ekintzak.	- Traslada a los usuarios a lugares, instalaciones o servicios, tanto internas como externas al Centro, de acuerdo a las instrucciones de los técnicos del Centro, realizando la conducción de vehículos en su caso y facilitando la realización de las actividades programadas. Frecuencia: Diaria. - Facilita la utilización por parte de los usuarios de los servicios comunitarios (salud, ocio y tiempo libre, etc.), acompañándoles a algunas consultas médicas, urgencias y salidas al exterior, etc. Frecuencia: Semanal.
		Eremu pribatua. Pertsona. Hezkuntza-jarduerak.	- Realiza las actividades educativas (creación de hábitos, implantación o extinción de conductas, etc.) individuales o en grupos homogéneos, facilitando el proceso educativo de los usuarios a su cargo, siguiendo las instrucciones del Psicopedagogo. Frecuencia: Diaria.
		Eremu pribatua. Pertsona. Zaintza.	- Realiza la vigilancia y atención asistencial de usuarios, durante el período de descanso nocturno. Frecuencia: Diaria. (sólo cuidadores de noche). - En general, todas aquellas actividades no especificadas anteriormente que le sean solicitadas dentro de la naturaleza de las que corresponden a su puesto, y que redunden en beneficio de los usuarios y del servicio.
		Eremu pribatua. Pertsona. Familia.	- Mantiene relación con las familias de los usuarios asignados, informándoles del estado general y orientándolas en relación a las necesidades básicas de los mismos (vestuario, etc.).
	<b>Egoitza</b>	Eremu pribatua. Egoitza. Jangela.	- Atiende el comedor, ensañando a los usuarios hábitos de orden, limpieza, corrección y utilización de cubiertos y prestando la ayuda necesaria para la alimentación diaria de los usuarios a su cargo Frecuencia: Diaria.
		Eremu pribatua. Koordinazioa/ elkarlana.	- Colabora con el Equipo Técnico del Centro en la planificación, ejecución y evaluación del programa educacional de cada usuario, proponiendo mejoras puntuales de carácter general que redunden en beneficio del usuario y participando en las reuniones de información a las que sea convocado. Frecuencia: Diaria. - Colabora con las personas encargadas de otros servicios (limpieza, lavandería, cocina, etc.), notificando incidencias y necesidades de los usuarios, a fin de conseguir una atmósfera y entorno físico agradable, limpio y adecuado.
		Eremu pribatua. Jardueren antolaketa.	- Realiza, controla y vigila las actividades programadas de ocio, tiempo libre y juegos de los usuarios a su cargo, proponiendo en su caso actividades puntuales adicionales. Frecuencia: Variable (semanal).

		Eremu pribatua. Tratamenduak.	- Administra los medicamentos prescritos por Médico y A.T.S., preparados en unidosis, y cuida de los usuarios en períodos ,de enfermedad o con necesidades sanitarias especiales, en el ámbito de su competencia. Excepcionalmente, colabora en la preparación de medicación habitual, de acuerdo a instrucciones precisas y concretas del personal médico-sanitario y efectúa el autocontrol de ser el medicamento prescrito. Frecuencia: Diaria.
		Eremu pribatua (→ publikora). Intzidentziak.	- Registra las incidencias de seguimiento diario de los usuarios en Hoja Individual, así como otros registros requeridos por el personal técnico de la F.U. - Realiza curas simples y otros tratamientos sanitarios menores, detectando situaciones, accidentes e incidencias de urgencia sufridas por usuarios del Centro (ataques epilépticos, asfixia por atragantamiento.), tomando las medidas inmediatas que estén establecidas al efecto e informando a Gobernanta, Médico, A.T.S. o Responsable del Centro. Frecuencia: Variable
		Eremu publikoa. Ikastaroak.	- Asiste a cursos de formación relativos a sus tareas y participa en visitas e intercambios con otras entidades que desarrollan programas similares o comunes. Colabora en la formación de otro personal cuidador (normalmente en prácticas) .Frecuencia: Anual.

**2. eranskina** Uliazpiko zaintzaileen funtzio baten analisisa

<p>Lanpostuaren Kodea: Postua: Zaintzailea (Uliazpi) Zerbitzua: Erakunde publikoak</p>	<p><b>Oinarrizko funtzioa:</b> <i>Realiza tareas de cuidado y atención referidas a la vida diaria de los usuarios del Centro que, a causa de su discapacidad, precisen, así como al proceso recuperador o de rehabilitación para la autonomía personal de los mismos, procurando el establecimiento de un clima acogedor, similar al familiar, así como su integración en el medio social.</i></p>
--	--

Betebehar zehatza	Funtzio komunikatiboak	Testu-generoak
<p><i>En general, todas aquellas actividades no especificadas anteriormente que le sean solicitadas dentro de la naturaleza de las que corresponden a su puesto, y que redunden en beneficio de los usuarios y del servicio.</i></p>	<p><b>Informazioa ematea eta eskatzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zerbait dagoen, baden edo dagoen dakien galdetzea eta erantzutea.</li> <li>▪ Informazioa ematea eta eskatzea eguneroko kontuez.</li> <li>▪ Denboran zehar gertatutako ekintzak kontatzea</li> </ul>	<p><b>Ahozkoak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ulermena:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Elkarriketak</li> <li>▪ Azalpenak</li> <li>▪ Prozesuen deskribapenak</li> </ul> </li> <li>▪ Ekoizpena:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Elkarriketak</li> <li>▪ Galde-erantzunak</li> <li>▪ Aholkuak, argibideak eta jarraibideak</li> <li>▪ Sentimenduen eta jarrerren deskribapenak</li> <li>▪ Azalpenak, iritziak eta argudioak</li> </ul> </li> </ul>
<p><b>Testuinguruaren ezaugarriak</b></p>	<p><b>Iritziak, ezagutzak eta jarrerak adieraztea eta egiaztatzea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zerbait baieztatzea / ezeztatzea</li> <li>▪ Norbaiti buruz edo zerbaiti buruz iritzia eskatzea eta ematea</li> <li>▪ Iritzia adieraztea, arrazoi laburrak emanez.</li> <li>▪ Jarrerren berri ematea.</li> <li>▪ Gaitasuna edo gaitasunik eza adieraztea.</li> </ul>	<p><b>Idatziak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ulermena:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Foroetako oharrak</li> <li>▪ Erregistroak</li> <li>▪ Oharrak</li> <li>▪ Kontrol-orriak</li> <li>▪ Irteeretako parte hartze-orriak</li> <li>▪ Aisialdi eta komunitatean parte hartzea</li> </ul> </li> <li>▪ Ekoizpena:                             <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Inprimakiak, txantiloak (bete)</li> <li>▪ Mezu laburrak (mezu elektronikoak, postalak, oharrak)</li> <li>▪ Ohar eta jakinarazpenak</li> <li>▪ Foroetako oharrak</li> <li>▪ Erregistroak</li> <li>▪ Oharrak</li> <li>▪ Kontrol-orriak</li> <li>▪ Irteeretako parte hartze-orriak</li> <li>▪ Aisialdi eta komunitatean parte hartzea</li> </ul> </li> </ul>
<p><b>Enuntziatzaile-enuntziatarioria</b></p>	<p><b>Sentimenduak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zalantza adieraztea.</li> <li>▪ Aldarteaz, osasun-egoeraz galdetzea eta informazioa ematea.</li> <li>▪ Beldurra edo kezka adieraztea</li> </ul>	
<p><b>Rolak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Zaintzaile – Zaintzaile</li> <li>▪ Zaintzaile – Artatu</li> </ul> <p><b>Harremana:</b> gertutasunezkoa, formala</p>	<p><b>Solaskidearengan eragitea</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Laguntza eskatzea eta eskaintzea.</li> <li>▪ Egiteko bat proposatzea.</li> <li>▪ Planak eta asmoak adieraztea</li> <li>▪ Aholkuak ematea eta eskatzea</li> <li>▪ Ohartaraztea</li> </ul>	
<p><b>Erabilera-esparruak</b></p>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Pertsona. Eremu pribatua. Zaintza.</li> </ul>		
<p><b>Gaiak</b></p>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Ohiko jarduerak:</b> eguneroko eginkizunak, egoerak, etxeko lanak, ohiturak ...</li> <li>- <b>Osasuna eta gorputza zaintzea:</b> sintomak, aholkuak, gaixotasuna, egoera fisikoa, botikak ...</li> </ul>		